



PUBLIKOEN GARAPENA

AUDIENZIEN KUDEAKETA EAEN

Laburpen Exekutiboa



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Laburpen Exekutiboa

Azterlan hau Kulturaren Euskal Behatokiak 2015ean egindako **→ Publikoei buruzko azterlana, teoriatik eta praktikatik egindako analisia** txostenaren eguneratzea eta zabaltzea da. Txosten honek behar jakin bat du abiapuntu: kulturaren sektoreak duen kezka pandemiaren aurreko audientzia-mailak berreskuratzea zaila izaten ari delako. Helburu nagusia izan da gaiaren egoera aztertzea audientzien garapenari dagokionez, Covid-19aren ondorioz jarduera geldiarazi izanak oraindik markatzen duen testuinguru honetan.

Helburu hori lortzeko, parte-hartze kulturalean oinarritutako ikuspegia izan du ardatz eztabaida teorikoak, eta testuinguruan kokatu dira gaur egun audientzien garapenari gehien eragiten dioten faktoreetako batzuk; enpirikoki sakondu da audientzien galeran eta berreskurapenean; Euskadin egiten ari diren publikoen garapen-esperientziak aztertu dira, eta, azkenik, ekintza-ildo estrategikoak zehaztu dira.

Pandemia iritsi ondoren, ikusi zen aldatu egin zirela kultura kontsumitzeko ohiturak, baina aurrez ere nabari zen joera hori digitalizazioak eta teknologia berrien aurrerapenak bultzatuta. Gure gizartea eraldatu egin du iraultza digitalak, eta horrek zuzenean eragin du kulturaren arloan, harremanetarako eta komunikaziorako kanalak eraldatu baitira eta agertoki berriei ireki baitzaizkie ateak. Aspaldidanik gertatzen ari ziren aldaketa horien aurrean, Covid-19a etorri izanak bizkortu eta zabaldu egin zituen aldaketak kultura-kontsumoaren ereduetan, kultur praktika tradizionalaren alternatiba berriak probatzeko aukera izan baitzen.

Kulturaren publikoei eta audientzien garapenari buruzko ezagutzan sakontzeko, lau azterketa-ardatzetan oinarritutako ikuspegia hartu du kontuan txosten honek:

<p>Kulturaren parte hartzeko moduen eraldaketa</p>	<p>Aspaldidanik ikusten ari den parte-hartze kulturaleko moduen eraldaketa kultura-kontsumorako ohituren aldaketa bihurtu da. Tradizionalki, kultura-jarduera hartzailleetara joatea izan du ardatz audientzien azterketak, baina gaur egun presentzialtasuna ez da kultura-kontsumoaren funtsezko faktorea. Beraz, beharrezkoa da hainbat parte-hartze kultural mota kontuan hartzea (hartzailera, aktiboa, fisikoa, digitala, legitimatua edo herrikoa).</p>
<p>Kulturarako irispidea izateko oinarritzko eskubide gisa</p>	<p>Oinarritzko eskubide gisa kulturarako irispidea kontuan hartu beharreko fokuetako bat da publikoari buruzko edozein azterlanen helburua zentratzeko. Kultura-ekipamendu jakin bateko audientziak handitzeaz gain, kulturarako irispideak eskubide eraginkorra izan behar du herritar guztientzat. Horregatik, politika publikoek eta audientzia-estrategiek ardatz gisa hartu behar dituzte kulturarako irispide-oztopoak eraistea eta parte-hartze kultural eraginkorra sustatzea.</p>
<p>Kultura-publikoen tipologia</p>	<p>Kulturaren publikoak segmentatuta, hau da, hasiberriak, aktiboak, leialak eta desaktibatutak bereizita, hobeto ezagutu daitezke audientziak eta modu eraginkorragoan egokitu daitezke garatu beharreko ekintzak. Jardun nahi den publikoaren profila ezagutzen badugu, hainbat estrategia erabili ahal izango ditugu (erakartzekoak, aktibatzeakoak, leialtzeakoak edo berreskuratzeakoak).</p>

Dagoen eskaintza

Azkenik, kultura-eskaintza handi eta askotarikoak ekipamenduen artean lehia sortzen du publikoa erakartzeko orduan. Kultura-ekoizpen handiko unean bizi gara, eta zuzeneko arte tradizionalenekin lotutako jarduera hartzaileetan biltzen ari da audientziaren galera. Testuinguru horretan, publikoarentzako esperientzia onak ziurtatzea funtsezkoa izango da haien itzulera ziurtatzeko.


Parte-hartze kulturalaren kontzeptua zabaltzean oinarritutako ikuspegi teorikoa hartzen bada, ikus daiteke zenbait datuk adierazten dutena baino hobea dela sektorearen berreskuratze-maila. Hala eta guztiz ere, azterketaren ardatza baldin bada presentzialtasuna eta praktika hartzaileak eskatzen dituzten esparruetako audientziak berreskuratzea, hala nola arte eszenikoetan, zailtasun handia ikusten da publikoaren mailak pandemiaren aurreko mailetan berreskuratzeke.

Txosten honetan gaur egungo joeren erreposoa egin dugu, eta horrek aukera eman digu modu egokian erradiografiatzeko audientziekin zer gertatzen ari den kulturaren arloan. Atal honetan ikuspegi bikoitza eskainiko zaio audientzien azterketa enpirikoari.

- Lehenik eta behin, denboraren ikuspegia ezarri da pandemiaren aurreko eta ondorengo bilakaera zein izan den jakiteko, abiapuntuko publiko-mailak eta berreskuratze ahal izan direnak ikusita.
- Bigarrenik, egungo publikoaren profila eta audientzia-jaitsiera horrek izan dituen berezitasunak aztertu dira.

Egungo egoerara denboran hurbilduz gero, audientzia-mailek azken urte hauetan izandako bilakaera ikus daiteke, bai eta Covid-19aren pandemia bat-batean etortzeak eragindako talka ere.

1. grafikoa: Audientzia-mailen bilakaera kultura-praktika hartzaileetan 2006-2022 (bertaratutako ehunekoa)



Iturria: geuk egina, Espasiniako Ohitura eta Praktika Kulturalen Inkestako datuak oinarri hartuta

Egindako azterketa enpirikotik ateratzen den ondorioa da 2021ean audientzia-mailek gora egin zutela, baina ez zirela pandemiaren aurreko mailetara iritsi. Arte eszenikoen eta musikalen ikuskizunak izan ziren pandemiaren ondoren publikoen bertaratzean murrizketa handiena izan zuten jarduerak, eta antzerkiera edo kontzertuetara joatea izan ziren berreskuratze-maila onenak izan zituzten jarduerak. Pandemiak eragin txikiena izan duen kultura-jarduera, alde handiarekin gainera, liburuak irakurtzea izan zen, eta, ondoren, baina urrutira, liburutegietara joatea eta monumentuak eta museoak bisitatzea.


Bigarren hurbilketa enpirikoak aukera eman digu pandemiaren ondoren zenbat publiko galdu den aztertzeko. Txostenean egindako konparazioak (2018-2019 eta 2021-2022) erakusten duenez, aztertutako jarduera hartzaile gehienetan beherakada sumatu zen publikoetan, eta gorakada, berriz, publiko ez zirenetan. Datu horrek berretsi egiten du zaila dela Covid-19aren aurreko audientzia-mailak berreskuratzea.

Antzerkian izan zen publiko-galera handiena, baina opera da publiko ez zirenen maila handiena izan zuen jarduera, bai pandemiaren aurretik bai ondoren, eta gero datoz dantza eta musika klasikoko kontzertuetara joatea.

Audientzien analisiaren ikuspegi nagusiak azaldu eta pandemiaren aurreko publiko-mailak berreskuratzeko zailtasuna erakusten duten datuak modu enpirikoan aurkeztu ondoren, audientziak garatzearekin lotuta, eta, zehazkiago, zuzeneko arteen alorrean Euskadin gaur egun egiten ari diren esperientziak bildu eta aztertu dira. Hainbat eragile-tipologiatan oinarrituta egin da analisi hori:

Unibertsitateak eta ikerketa-zentroak	Audientzien garapenean parte hartzen dute ezagutza sortuz edo transmitituz, eta espezializazio horri lotutako proiektuak bultzatuz edo haietan parte hartuz.
Elkarte sektorialak	Barneko ekintzak (bazkideei zuzenduak) eta kanpokoak (herritar guztiei zuzenduak) bereizten dira. Barne-mailan, sektorearen kohesioa, prestakuntza-eskaintza eta elkartekideentzako intereseko arloetan aholkularitza espezifiko hobetzearekin lotutako ekintzak nabarmentzen dira. Kanpo-mailan, beren jarduera-eremuan espezializatutako komunikazio-gune gisa jarduten dute elkarte sektorialeak.
Ekipamendu handiak	Irisgarritasunean, prezioen egokitzapenean, programazioan, plangintza estrategikoan edo datuen azterketan eragiten duten ekintzak egiten dituzte.
Ekipamendu-sareak	Egiten dituzten ekintza nabarmenetako bat da gomendioak edo ibilbideak egitea, informaziorik ezari aurre egiteko eta kulturarako irispideari lotutako oztopo psikologiko batzuk arintzeko. Gainera, sare horiek zubiak eraiki ohi dituzte audientzien eta eskaintzaren artean, komunikazio-ekintzen bidez edo programa didaktikoak lantzearekin lotutako ekintzen bidez, entsegu irekiak aurkeztuz, adituekin solasaldiak eginez, lankidetzak-ekintzak eginez, etab.
Eragile publikoak	Sektore publikoak publikoen garapena sustatzen du, plangintza estrategikoko ekintzen bidez edo zuzeneko pizgarriak emanez.

Txostena amaitzeko, jarduera-eremu zehatzetatik eta aurrez aztertutako praktiketatik abiatuta, audientzien garapenean jarduteko ildo estrategikoak aipatuko ditugu.



Laburbilduz, pandemiak eragina izan du kultura-ohituren eraldaketan, nahiz eta aldaketa horiek ez diren sortu COVIDa etorri izanagatik bakarrik. Biztanleen parte-hartze kulturalaren maila aldatu egiten da hartutako ikuspegiaren eta kultura-kontsumoarekin lotutako praktiken eta jardueren tipologia araberak.

Gaur egun, garrantzitsua da azpimarratzea kultura-jardueren tipologia aldatzeaz gain, aisialdirako eskaintza handia dagoela, eta horrek lehia sortzen duela kultura-eskaintzarekiko.

Sortutako eztabaida teorikoak, egungo egoeraren azterketa enpirikoarekin eta EAEn aurrera eramandako ekintzen diagnostikoarekin batera, aukera ematen du Euskadiko audientzien garapenean egungo egoera erradiografiatzeko eta sektoreari egoera berrira egokitzen lagun diezaioketen estrategia- eta ekintza-ildoak zehazteko, bai eta publikoen azterketa zehatza sektorearen beharretara egokituta egiteko ere.

